



GIPUZKOAKO HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO 2019-2030 PLAN OROKORRAREN INGURUMEN IKERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMEN DOKUMENTUA

21/2013 Legearen, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 6.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, eta 3/1998 Legearen, otsailaren 27koaren, Euskal Herriko Ingurugiroa babestekoaren, 41. artikuluan, eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, Planen eta Programen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duenaren, 4. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorrari (Hondakin Plana, aurrerantzean) nahitaez dagokion ingurumen ebaluazio estratergiko arrunta egin behar zaio.

Horri dagokionez, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 18. artikuluan eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 8. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, GFAko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak, 2018ko maiatzaren 28an, eskatu du hasi dadin Hondakin Planaren ingurumen ebaluazio estratergiko arruntaren prozedura, eta planaren hasierako zirriborroa eta haren hasierako dokumentu estratergikoa (HDE) erantsi ditu. Eskaera eta dokumentazio horiekin bat, ingurumen organoak irismen dokumentua igorri behar du, ukitutako administrazioei eta interesatutako publikoari kontsulta egin ondoren, ingurumen alderdiak planaren prestaketan integratzeko, eta haren ingurumen ikerketa estratergikoak (IIE) izan behar duen zabaltasuna, xehetasun maila eta espezifikotasun maila zehazteko.

Horrenbestez, 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, 44. artikuluan dioena aplikatuz, eta 16/2012 Foru Dekretuak, ekainaren 30ekoak, xedatutakoari jarraikiz, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak irismen dokumentu hau igorri du, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorrari buruzkoa; dokumentu hori da 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako erreferentziatzko dokumentua. Honako termino hauetan igorri du:

1. HONDAKIN PLANAREN HASIERAKO ZIRRIBORROAN ETA HAREN HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAN JASOTAKO AUKERA NAGUSIAK

Hondakin Plana justifikatuta dago Gipuzkoako Hiri Hondakinaren Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren Aldaketa behin betiko onartu zelako (9/2018 FD, apirilaren 10ekoak), eta, 2019an gainerako instalazioak eraikitzea aurreikusi denez, agortu eta amaitu egin da Gipuzkoako hiri hondakinaren kudeaketaren plangintzaren aurreko aldia (2002-2016 Hondakin Plana eta Aurrerapen dokumentua). Horrez gain, hondakinaren kudeaketa plan bat onartu zen autonomia mailan, eta Europako Batzordeak ekonomia zirkularrari buruzko neurri multzo bat argitaratu zuen, hiri hondakin alorrean eskatu daitezkeen lege proposamen berrikusiekin.

Funtsean 2002-2016 Hondakin Planean eta haren aurrerapen dokumentuan jasotako xede nagusia, lurralde esparrua, definizioak, aurreko kontzeptuak eta aukera estratergikoa hartuta eta mantenduta, honako hauek dira egungo Hondakin Planak arautzen dituen hondakinei dagokienez (etxeko hondakinak; hondakin industrialak, merkataritzakoak eta erakundeetakoak, etxeko hondakinekin alderatu daitezkeenak,



amianto hondakinak kopuru txikitzen eta tratamendu plantetako bigarren mailako hondakinak) dituen helburu nagusiak:

- Araudi berria jasotako zehaztapenak eta hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko estrategiak sartzea.
- Gipuzkoan eskuragarri dauden hondakinen kudeaketaren datu berriak biltzea eta aztertzea.
- Egindako iragarpenaren bitartez hondakinak sortzeari buruz egindako aurreikuspenak eguneratzea eta Hondakin Planaren aldira estrapolatzea.
- Hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko aukera estrategikoak ezartzea: prebentzioa maximizatzea, lehen mailako hondakinen gaikako biltzea eta birziklapena, biohondakinen konpostaje/biometanizazio maximoa, bigarren mailako hondakinak ahal beste balorizatzea, eta lehen mailako hondakinen zero isurpena.
- Bere garaian onartutako kudeaketa helburuak berrikustea, araudi berriak oinarri hartuz, eta Hondakin Planaren aurreikuspenak horietara eta hiri hondakinen kudeaketaren parametro nagusien bilakaerara egokitzea.
- Kudeaketaren antolakuntza alderdiak garatzea.

Aurrekoari jarraikiz, Hondakin Planak berrikusi eta egokitu egiten ditu dokumentuaren funtsezko oinarri teknikoak osatzen duten programa guztien helburuak eta kudeaketa-eta jarduketak leerroak.

- Prebentziorako programa: Hartu beharreko neurri orokorren artean daude honako hauek: helburuak eta neurriak ezartzea 2008/98/CE Zuzentarauari, EAEko 2020 Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planari eta EAEko hiri hondakinen kudeaketa hobetzeko gida teknikoari jarraikiz; hondakinak prebenitzeko jardunbide egokienei buruzko informazioa partekatze sistema bat sortzea eta udalantzako jarraibide batzuk sortzea Gipuzkoako hiri hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren esparruan; prebentzio, berrerabilera eta birziklapen alorreko jarduketentzako GFaren diru-laguntzen eta beken programa; elikagaiak xahutzearen prebentzioa, Gipuzkoako elikagai bankuekin elkarlanean egindakoa; hitzarmen espezifikoak garatzea ekonomia zirkularrarekin lotutako gaietaz; ekodiseinuko, berrerabilera eta birziklapeneko irtenbideetan aurrera egitea, GK Recycling klusterreko enpresekin batera; eta programarentzako jarduketak zehatzen ebaluazioa, gutxienez 6 urtean behin egingo dena.
- Berrerabilera prestatzeko programa: Gutxienez honako jarduketak hauek jasoko dira: berrerabilera hobetzeko hartu beharreko neurriak; berrerabilera prestatzeko helburuak ezartzea eta Europak ezarritako helburuak lortzeko ematen duten laguntza maila ezartzea; ebaluatzea biltzea sistema berrien beharra eta dagozkion inbertsioak eta prebentzio, berrerabilera eta birziklapen alorreko jarduketarako GFaren diru-laguntzen eta beken programa.
- Gaikako biltetarako eta birziklapenerako programa, konpostajea/biometanizazioa barne: Planteatu da estrategia bat definitzea, hondakinen gaikako biltetaren tasa areagotzea eta dagozkion lekuan bota ez diren hondakin kopurua murriztera bideratzea; ikertuko da hondakin mota berrien gaikako biltzea zabaltzeko beharra; gaikako biltetaren hainbat aukera aztertuko dira, birziklapena eta denboran herritarren parte hartzea sustatzen duten politiken arabera (atez atekoa, edukiontzietako biltzea, borondatezko ekarpeneko gaikako biltzea); prebentzio, berrerabilera eta birziklapen alorreko jarduketarako GFaren diru-laguntzen eta beken programa; eta ekintza plan bat definituko da, zehaztutako helburuak lortzeko



egin beharreko ekintzak jasoko dituen. Bereziki garrantzitsuak izango dira Gipuzkoako hiri hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiak, Gipuzkoako Birziklapen Klusterrak eta haren batzorde exekutiboak, "GK Recycling"ek eta "GK Green Fashion" moda jasangarriaren klusterrak.

- Beste balorizazio batzuei buruzko programa: Egindako iragarpenari jarraikiz hartutako erakunde aurrekarien eta plangintza aurrekarien arabera, identifikatu egingo dira hondakinen hierarkiaren arabera eta haien balio kalorifikoa kontuan izanda irtenbide bakarra balorizazio energetikoa duten hondakinak, ahal beste efizientzia energetiko sortzeko helburuarekin, eta betiere gainditu egin beharko dituzte legediak balorizaziorako ezarritako efizientzia energetikoaren mugak.
- Ezabatzea optimizatzeari buruzko programa: Hiri hondakinen zabortegirik gabeko Gipuzkoa batean, zaborra botatzea minimora jaisteko helburua jarri da; soilik planteatu da balorizazio energetikoko plantaren errauntsak botatzea kudeatzailearen bidez, horientzako balorizazio aukerarik garatzen ez den bitartean. Egiaztatu beharko da lehen mailako hondakinik ez dela zabortegira botatzen, ezta gehiago erabili daitekeen bigarren mailako hondakinik ere, salbu eta legediak zalantzarik gabe ezarritako salbuespenetan. Horrez gain, kontuan izango da 2030erako ekonomia zirkularraren paketearen zehaztutako helburua, hiri hondakinak zabortegian deuseztatzea % 10era mugatzekoa. Kontuan izango da amiantoaren kopuru txikiaren arazoa, obra txikiena edo antzekoena, eta irtenbide bat emango zaio lurralde osorako (hura garbigunean partikularrengandik etorritako kopuru txikitik jasotzeko aukerak aztertuko dira).

Gainera, ezarritako helburuen eta kuantifikatutako tratamendu beharren arabera, ulertzen da ontziak banatzeko plantari/plantei, konpostaje eta/edo biometanizazio plantari/plantei, berrerabilerrako prestatzeko plantari/plantei (Ekocenter eta abar) dagozkien azpiegiturentzat beharrezkoa dela planak azterketa bat egitea, haien tamaina egokiari eta jarduketa aukerei buruzkoa (programatutako azpiegituren mantentzea, dauden azpiegituren mantentzea eta/edo berriak eraikitzea). Horrez gain, diagnostiko bat egingo da lurraldean dauden titulartasun eta kudeaketa pribatuko berreskuratze eta birziklapen planten inguruan, behar edo aukera posibleak identifikatzeko helburuarekin.

Azkenik, Hondakin Planak kudeaketaren antolakuntzari buruzko alderdiak (eragileen arteko harremanak, kudeaketako eta parte hartzeko organo posibleak eta abar) txertatuko dizkio inbertsioen, beharren eta finantzaketa sistemen kuantifikazioari, planaren jarraipen eta ebaluazio tresnei (hiri hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Behatokiaren funtzioa, aldizkako azterketak, balorizazio energetikoaren azpiegituren eragin gunearen jarraipen epidemiologikoa eta abar), eta gizarteko eta erakundeetako parte hartze prozesuei.

Bere aldetik, hasierako dokumentu estrategikoak (HDE), dokumentu horrentzat 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, eta 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, ezarritako edukien bitartez, Hondakin Planaren helburu estrategikoen eta bete beharreko beharren justifikazioaren deskribapen bat egiten du, irismen eta muga espazialak zehazten ditu, eta plangintzarako aurkeztutako aukerak deskribatzen ditu (0 aukera eta ontzientzat, bihondakinentzat eta hondakin berrerabilgarrientzat –bolumen handikoak– beharrezkoak diren azpiegiturekin lotutako 3 aukera talde).

Planaren eta haren garapen jasangarriaren deskribapen labur baten ondoren, dokumentuak ikerketa esparruko ingurumenaren baliabideen eta alderdi garrantzitsuen



zerrenda bat egiten du (klima, litologia, lurzorua, hidrologia, espazio natural babestuak, landaredia, fauna eta konektagarritasuna, paisaia, giza habitata, nekazaritzako eta basozaintzako jarduerak, eta abar), baita planaren xedeari lotuen dauden ingurumen arazo eta baldintzatzaileena ere (hondakinen kudeaketa, uren kalitatea, airearen kalitatea eta klima aldaketan eragiten duten alderdiak, osasun publikoa). Horrez gain, lurraldeko ingurumen unitateak definitzen ditu (bi gune handi planteatzen ditu, irizpide batzuei jarraikiz, eta horietako bat egokiagozat jotzen du, hala badagokio, dagoeneko artifizializatutako instalazioak -zoruak, zabortegi zaharrak, gune eraldatuak eta abar-jasotzeko).

Planak aurreko ingurumen elementuetan izan ditzakeen inpaktuei dagokienez, irismen dokumentuak azaltzen du Hondakin Plana ingurumen hobekuntzarako elementu bihurtzen dela bere horretan, bere izaera dela medio (hondakinen sorrera prebenitzeak eta murrizteak eta hondakinak birziklatzeak berekin dakarte karbono urriko ekonomia sustatzea, CO₂ isurpenak murriztea, lehengaien erauzpena murriztea eta abar), baina azpiegiturek eta haien kokapenek sortuko dituztela ingurumen afekzioak.

Zentzu horretan, eta Hondakin Planaren helburua ez den arren hondakinak kudeatzeko azpiegituren kokapen zehatzak zehaztea, planak aintzatetsi egiten ditu eta bere egiten ditu Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren LPSan haien kokapenerako jasotako ingurumen irizpideak, eta, azpiegiturak lurraldekatzeko ebaluazioaren xede ez diren alderdiak gorabehera, IIEk berrikusi egingo ditu goian zehaztutako ingurumen elementuetan plana aplikatzeak izan ditzakeen ingurumen inpaktu orokorrak, eta aztertu egingo du plana zenbateraino egokitzen zaien dagozkion sektoreko eta lurraldeko planei (Gipuzkoako hiri hondakinen azpiegituren LPSak, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako, EAEko baien eta errekena, EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen estrategia, Klima aldaketaren aurkako Euskal Estrategia eta Gipuzkoakoa eta abar).

2. KONTSULTAK ADMINISTRAZIOEI, ELKARTEEI ETA PUBLIKO OROKORRARI

21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 19. artikuluan eta 211/2012 Dekretuaren, urriaren 16koaren, 9. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak ukitutako administrazioari eta publiko interesatuari egindako kontsulten izapidea egin du.

Planaren ezaugarriei eta ukitutako lurralde esparruari buruzko informazioan oinarrituta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak interesatu moduan honako administrazio eta erakunde hauek identifikatu ditu. Haiei bidali zien planaren zirriborroa eta haren hasierako dokumentu estrategikoa.

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko instituzioak eta organoak: Kultura Zuzendaritza Nagusia, Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia, Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia, Obra Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia, Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia, Mugikortasuneko eta Garraioko Zuzendaritza Nagusia, Errepideetako Zuzendaritza Nagusia, Bide Azpiegituren Kudeaketako eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia, Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzaren mendeko instituzioak eta organismoak: Kultura Ondarearen Zuzendaritza; Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza;



- Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza; Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza; Larrialdiei Aurregiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza; Garraio Azpiegituren Zuzendaritza; Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza; Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza; Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren Zuzendaritza; IHOBE; URA (Uraren Euskal Agentzia).
- Udal esparruko eta estatuko esparruko instituzioak eta organismoak: EUDEL (Euskadiko Udalen Elkarte); Kantauriko Konfederakunde Hidrografikoa; Kosten Probintzia Zerbitzua.
 - Hondakinen eta uren zerbitzuak emateko mankomunitateak eta partzuergoak: GHK (Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa), San Marcos Mankomunitatea, Debabarreneko Mankomunitatea, Debagoieneko Mankomunitatea, Sasietako Mankomunitatea, Urola Erdiko Zerbitzu Mankomunitatea, Urola Kostako Mankomunitatea, Tolosaldeko Mankomunitatea, Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatea, Gipuzkoako Uren Kontsortzioa, Añarbeko Uren Mankomunitatea.
 - Eskualdeko garapen agentziak: Debegesa, Tolosaldea Garatzen, Goieki, Urola Kostako Udal Elkarte, Oarsoaldea, Iraurgi Berritzen, Uggasa, Donostiako Sustapena, Bidasoa Bizirik.
 - Talde ekologistak eta ingurumenarekin lotutako elkarteak: Eguzki talde ekologista, Ekologistak Martxan talde ekologista, Haritzalde Naturzaleen Elkarte, Itsas Enara ornitologia elkarte, Greenpeace, SEO/Birdlife Donostia, Gipuzkoa Zero Zabor, Landarlan Ingurumen Elkarte, GURASOS.
 - Ikerketa eta teknologia zentroak: Aranzadi Zientzia Elkarte, K4 Research Alliance (EAEko teknologia zentroen aliantza).
 - Enpresa eta merkataritza elkarteak (2. eta 3. sektoreak): - Adeg, Gipuzkoako Merkataritza Ganbera, Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte, Gipuzkoako Merkatarien Federazioa, Dendarlean, ACLIMA (Ingurumen enpresen Euskal Klusterra), Gipuzkoako Birziklapen Klusterra (Ekorec, Ekogras, Garbera, Ekolber, Gomavial, Zerbitzu, Cometel, Cespa, Biurrarena, Serkom, Ekotrade, Smart Compo, ZB Group, Asfaltia, Campezo, Birzitek, Cementos Rezola, Tratamientos Geuria, Arregi, CIC Nanogune, Ekonek, Paperaren Klusterra, Langapoes, Innoledge, Masermic, Kursaal Green, Euskabea, Cristina Enea fundazioa, Koop. Emaus, Kutxa Ekogunea, Impact Hub, Surfrider, Tecnalia, Tecbynym Teknimap, Ekos, Mirandaola Servicios Ambientales, Asmatu, Haginpe, Ondoan, Gisma, Sayma, Idom).
 - Lehen sektorearekin lotutako elkarteak eta agentziak: Debagaraia, Debemen, Goimen, Urkome, Behemendi, Tolomendi, Fraisoro Nekazal Eskola, ENBA, EHNE.
 - Lehen eta bigarren hezkuntzaren alorreko elkarteak: Ikastolen Elkarte, Euskal Eskola Publikoak Sarean Elkarte, Gipuzkoako Ikastoletako Guraso Elkarte Federazioa (GIGEF), Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa (Baikara).
 - Unibertsitate alorreko instituzioak eta elkarteak: EHU (Materialak+Teknologiak ikerketa taldea), Deustuko Unibertsitatea (Gipuzkoako campusa), Mondragon Unibertsitatea, EHUko Ikasleen Kontseilua.
 - Langileen elkarteak eta antolakundeak: ELA, LAB, UGT, CCOO.
 - Berrerabilpenarekin eta birziklapenarekin lotutako elkarteak: Emaus (fundazio soziala), Gipuzkoako Elikagai Bankua, Konpostari Elkarte, Truke Berrerabilpen Elkarte, Oldberri S.Koop.



- Kontsumitzaileen elkarteak: Kontsumobide (Kontsumoko Euskal Institutua), Gipuzkoako Kontsumitzaileen Batasuna, Aranzazu, Gipuzkoako Etxeko Andreen eta Kontsumitzaileen Elkarteak.
- Generoaren eta adinaren gaiekin lotutako elkarteak: Erretiratu eta Pentsiodunen Gipuzkoako Elkarteak, Helduak Adi, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Emakunde Emakumearen Euskal Institutua, Unicef Gipuzkoa.

Era berean, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian, (www.gipuzkoaingurumena.eus), publikoak oro har eta interesdun orok egokitzat jotako ekarpenak egin ahal izateko, betiere ingurumen gaiei buruz.

Horretarako legezko epea amaitu eta txosten hau egin den artean, honako erantzun hauek jaso ditugu:

- LABek hainbat adierazpen egin ditu paper gainean Hondakin Planaren idazleetako batzuei buruzko iritzia inguruan eta okertzat jotzen duten iragarritako prozesu parte hartzailearen inguruan, administrazioek, enpresek eta herritarrek kontuan izan behar dituztenak hondakinak kudeatzean (hondakinak jatorrian nahitaez banatzea eta nahitaez gaika biltzea, Gipuzkoako mankomunitate batzuetan oso eraginkorra izan dena, kudeaketa publikoa eta ekonomia zirkularra sustatzea korporazio pribatuen kudeaketa ereduaren aurka eta abar). Horretan oinarrituta, eskatu dute baliogabetzeko Hondakin Planaren ingurumen ebaluazio estrategikoa hasteko aurkeztutako dokumentuak, ingurumen ikerketa berri bat egiteko, eta hasieratik prozesu parte hartzaile bat egitea ("Hitzartu" izenarekin abian jarri dena bezalakoa), alderdi interesatu guztiak bilduko dituen, modu gardenean ezartzeko kudeaketa sistema garbi, osasungarri, zilegi, merke eta jasangarri bat. Horrez gain, hipotekarik gabeko Hondakin Plan bat egin ahal izateko, eskatu du Zubietako erraustegia abian jartzeko prozesua geldiarazteko, azpiegitura horrek hainbat alderdi ekonomikotan, ingurumenekotan, kontratazioari eta lagapenei buruzko beste hainbatetan Europako araudia ez betetzeagatik jarritako salaketen inguruan Europako Batzordeak eta Eurostatek duten iritzia jakin arte; izan ere, hura baliogabetzea ekarri ahal izango luke.
- URAK (Uraren Euskal Agentzia) jakinarazi du, agentziak igorriko duen txostena gorabehera, kontsulta eskaera Kantauriko eta Ebroko Konfederakunde Hidrografikoei bidali diela.
- Kantauriko Konfederakunde Hidrografikoak jakinarazi du Uraren Euskal Agentziari bidali diola aurkeztutako dokumentazioa, txostena igorri dezan egoki irizten badio, Konfederakundeak haren bidez egin behar duen txostena gorabehera.
- ELAK adierazi du Hondakin Planak ez dituela lehentasunez jotzat jotzen dokumentuak berak aipatzen dituen printzipio estrategikoak, eta hainbat gabezi topatu dituela, adibidez, sartu ez izana "kutsatzen duenak ordaindu egin behar du" printzipioa; izan ere, horrek aukera ematen du, batetik, zaborra botatzeari eta errausteari zerga garaiak ezartzea eta, bestetik, hiri hondakinak banatzea sustatzea, eta hori nahitaezkoa izan beharko litzateke. Uste du ez dela onargarria sortutako konpost kopurua merkatuaren ahalmenaren arabera izateari buruz egindako aipamena, hobea baita konpost soberakinak edukitzea hura balorizazio energetikoko plantara eramatea baino, eta hondakinei balio handiena emateko ikuspegitik ez da gauza handirik aurreikusten berrikuspenari eta birziklapenari lotuta. Azpiegiturei



dagokienez, haren iritziz iragarpen dokumentuaren helburua balorizazio planta justifikatzea da, eta hari lehentasuna ematen zaio. Uste du handiegia dela, beste txosten batzuetan ondorioztatzen den moduan, eta ez dela beste instalaziorik proposatzen gainerako hondakinen tratamenduetarako. Horrez gain, uste du Hondakin Planean birziklatu daitezkeen edo aurretratamendurik ez duten zero hondakin botatzeari ematen zaion zentzuak behartzen duela birziklatu ezin diren hondakinak, toxikoak izan ez arren, toxiko bihurtzera (erraustearen ondorengo errauts), eta zabortege arriskutsuetan amaitzera. Azkenik, galdetzen du zergatik utzi behar diren alde batera mankomunitate eta udalerrri batzuetako hiri hondakinak gaika biltzeko esperientziak, birziklapen eta konpostaje arloan datu onak eman dituztenak, errausteari lehentasuna ematen dion eredu batera igarotzeko.

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak modu positiboan balioetsi du Balio Estrategiko Handiko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako azpikategoriako lurzoruak Hondakin Planaren "Ingurumen eta paisaia arloetako eremu sentikorrak" unitatearen barruan sartzeko proposamena, eta eskatu du kontuan izateko gainerako kategoriak ere, Nekazaritzako eta Basozaintzako LPSan ezarritako erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizeari dagokionez, baldin eta planteatzen bada nekazaritza zorueta dagoeneko badaudenez gain hondakinak kudeatzeko azpiegitura gehiago egitea edo daudenak handitzea. Kasu horretan, bidezkoa litzateke "nekazaritza sektoreko afekzioaren ebaluazioa" egitea, LPSn ezarritakoari jarraikiz.
- Dendartean-ek (Gipuzkoako Merkatarien Elkarteak) adierazi du ez dela bete GFAk 2016ko ekainean hartutako konpromiso publikoa, Hondakin Plana herritarren parte hartze prozesu bat egitekoa, eta, beraz, herritarren eskubideak mugatu egin direla. Balorizazio energetikoko plantaren kontratua herritarren parte hartzerik gabe egin da, gardentasunik gabe. Horrenbestez, 2016ko ekaineko egoerara itzuli arte, hondakinak kudeatzeko aukera guztiak mahai gainean zeuden egoerara (balorizazio energetikoko planta kanpo uzten zuena ere bai), ez dio zilegitasunik onartuko orain hasitako prozesuari. Edonola ere, adierazi du parte hartuko duela egungo Hondakin Plana izapidetzeari lotutako herritarren parte hartze prozesuan, aurreko planeko tratamendu azpiegiturak ebaluatu daitezkeen, nahiz eta badirudien GFAk ez duela horretarako asmorik. Aurrekoa dela medio, eskatu dute lehenbailehen geldiarazteko egindako azpiegituren obrak eta kontratuak, egiazko eztabaida bat eta parte hartzerako eskubidea bermatzeko.
- Debemenekek (Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak) eskatu du hondakin industrialen, merkataritzakoaren eta instituzionalen, alderatu daitezkeenen, definizioak barne hartzea "nekazaritzakoak" hitza, belarra biltzeko eta baratzeetarako erabilitako plastikoa barruan hartu dezan.

Jasotako erantzunetako hertsiki ingurumenari dagozkion alderdiak kontuan izan dira eta irismen dokumentu honen hainbat apartatutan integratu dira.

Erantzunak irismen dokumentu hau igorri eta gero jasotzen badira, horiek organo sustatzaileari bidaliko zaizkio, hala badagokio, kontuan izan daitezkeen Hondakin Planean eta haren IIE osatzean eta izapidetzean.

3. INGURUMEN HELBURU ESTRATEGIKOAK, JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK ETA ITURRI NORMATIBOAK



- A) Hondakin Planak eta haren IIEk kontuan izan beharko dituzte zirriborroan eta HDEn aurreratutako irizpideak eta helburuak, bai orokorrak bai hertsiki ingurumenari dagozkionak, eta aztertu egin beharko dute zein punturaino egokitzen zaizkien jasangarritasun irizpide eta helburu orokorretara eta ingurumena babesteko eta hobetzekoetara. Irizpide eta helburu horiek apartatu honetan zerrendatutakoekin osatuko dira.

Zentzu horretan, Hondakin Planari aplikagarriak zaizkion erreferentziako jasangarritasunaren eta ingurumen babesaren honako irizpide eta helburu nagusi hauek hartuko dira kontuan:

- Hondakinen kudeaketari dagokionez, kontuan izango dira honako irizpideak, gainera estrategien edo araudien moduan (Hondakin Planaren hasierako zirriborroaren 2. kapitulua) 1.5. kapituluan jasota daudenak: giza osasuna eta ingurumena babestearen printzipioa, kudeaketaren komunitate hierarkiaren printzipioa, kudeaketa integratuaren eta eraginkorraren printzipioa, hiri hondakinak sortzea prebenitzearen printzipioa, hiri hondakinaren balorizazioa maximizatzearen printzipioa, hiri hondakinak botatzea minimizatzearen printzipioa, buruaskitasun printzipioa, gertutasun printzipioa, administrazioaren subsidiarioritasun printzipioa eta partekatutako erantzukizunarena, ekoizlearen erantzukizun zabalduaren printzipioa eta eragile guztien erantzukidetasunarena, prezioen gardentasun printzipioa, gardentasunaren eta parte hartzearen printzipioa, baliabideen bizitza zikloaren eta ekonomia zirkularraren printzipioa, jasangarritasun printzipioa, merkatu berdea sustatzearen eta enplegua sortzearen printzipioa, klima aldaketaren aurka borrokatzearen printzipioa, genero berdintasunaren printzipioa eta NBEren garapen jasangarriaren helburuen printzipioak.
- Ingurumena eta giza osasuna babesteari dagokionez, honako planetan, programetan, estrategietan eta araudietan zehaztutakoak, harreman handiagoa dutenak Hondakin Planaren eduki propioekin (ikus irismen dokumentu honen 4. apartatua):
 - Transbertsalak: 3/1998 Legeak, otsailaren 27koak, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteari buruzkoak, Bigarren Tituluaren kapituluetan aipatutakoak (ingurumen baliabideen babes); eta Hirugarren Tituluaren (Ingurumenean eragina duten jardueren antolamendua) I. kapituluan (Xedapen orokorrak), IV. kapituluan (Hondakinak).
 - Transbertsalak: Garapen Jasangarriaren 2002-2020 Euskal Estrategian ezarritakoak; horien artean nabarmendu behar da 2. helburua: "*Baliabide naturalen eta hondakinen kudeaketa arduratsua*". Horiek osatzen dira 2020 EAeko Ingurumen Esparru Programan zehaztutako konpromisoekin eta jarduketa lerro espezifikoeekin
 - Klima aldaketa: EAeko klima aldaketaren aurkako 2050 Estrategian ezarritako helburu estrategikoak eta jarduketa lerroak, eta, bereziki, klima aldaketaren aurkako 2050 Gipuzkoako Estrategiaren 6. helburuari, "*Hiri hondakinen sorrera murriztea eta tratamendurik gabe zero hondakin botatzea lortzeari*", dagozkion jarduketa lerroak eta ekintzak.
 - Airea: Airearen kalitatearen eta atmosferaren babesaren ebaluazioarekin eta kudeaketarekin lotutako zuzentzaruetan eta barne araudietan



ezarritakoak (2001/80/CE, 2001/81/CE, 2008/50/CE, 1073/2002 ED, 430/2004 ED, 34/2007 Legea eta abar), baita kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuei buruzko araudian xedatutakoa ere. Zehazki, teknikoki eta legearen arabera akreditatutako hondakinak kudeatzeko sistemen, azpiegituren eta jarduketa lerroen alde egiteko aukera ematen duten irizpideak; sistema, azpiegitura eta jarduketa lerro horiek eskuragarri dauden teknika onenak izan beharko dituzte atmosferako emisio eta iMmisio mugak betetzeko, osasunari ez eragiteko moduan.

- Ura: Gipuzkoan Uraren Erabilera Jasangarrirako Jarraibideetan, Uraren Esparru Zuzentaraua, 1/2001 LED (Uren Legearen Testu Bategina) eta 1/2006 Legea, EAEko Urei buruzkoa, eta Ekialdeko Kantauriko Mugarte Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa. Zehazki, hondakinak kudeatzeko sistemak eta azpiegiturak lurrazaleko eta lur azpiko ur masen egoeran eragina dutela eta hura kaltetzen ez dutela ziurtatzeko aukera ematen duten irizpideak.
- Lurzorua: Lurzorua babesteko Estrategia Tematikoa (COM -2006- 231 finala) eta lur kutsatuei buruzko araudia (22/2011 Legea, 4/2015 Legea, 165/2008 Dekretua). Zehazki, lehenestea eta sustatzea antropizatutako lurzoruak berrerabiltzea, lurzoru naturalak, landakoak edo nekazaritzakoak artifizializatu beharrean, eta garapen planek eta proiektuek bete beharreko irizpideak ezartzea, arrisku naturalei lotuta kokapen egokiari (uholde arriskua, higadura eta abar), paisaia baliabide baliotsuei, gune natural babestuei, intereseko landarediari, fauna interes bereziko guneei eta konektagarritasun ekologikoari, balio handiko nekazaritza lurzoruei eta abarri dagokienez.
- Energia: Gipuzkoa Energia Foru Planean eta Euskadiko Estrategia Energetikoan aztertutako eta ezarritako irizpideak. Zehazki, planetik eratorritako kudeaketa sistemetan eta azpiegiturretan energia aurrezpena eta efizientzia bultzatzea.
- Baliabide naturalak eta hondakinak: ekonomia zirkularra, ekoberrikuntza eta ekodiseinua sustatzea baliabideen kontsumoa murrizteko eta hondakinak sortzea prebenitzeko tresna gisa, produktuen funtzionaltasuna, iraunkortasuna eta birziklagarritasuna areagotuta, eta, gainera, kontsumo arduratsuen, tokiko kontsumoaren eta banaketa zirkuitu laburren jardunbideak sustatzea.

Laburpen modura, Hondakin Planaren erreferentziazko irizpide nagusia eta hartu behar dituen helburuak izango dira aire, ur eta lurzoru garbi eta osasungarriak bermatzea, baita haien guztien arteko harremanak ere, baliabide naturalen kontsumoa murriztuz (berriztagarriak eta berriztaezinak), hondakinen kudeaketa egokia, biodibertsitatearen babesa, eta klima aldaketaren gaia; horrela, lehentasuna emango zaie gasen, likidoen eta solidoen isurpenak minimizatzen eta egoki tratatzen dituzten aukerak, ingurumen kalitate handia bermatzen dutenak.

- B) Honako hauek dira dokumentu hau egitean kontuan izan diren ingurumen arau nagusiak, Hondakin Plana egitean kontuan hartu beharrekoak (zerrenda ez da oso-oso):



Europakoa

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/CE Zuzentaraua, Hondakinen Esparru Zuzentaraua (HEZ), azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa, zuzentarau jakin batzuk baliogabetzen dituena.
- 2008/98/CE Zuzentaruaren COM (2015)595 aldaketa proposamena.
- 2015eko abenduaren 2ko pakete berria, Europako Batzordearena, ekonomia zirkularrari buruzko legegintzako proposamenak jasotzen dituena, 2018ko maiatzaren 22an Europar Batasunaren Kontseiluak onartutakoak.
- *Kontseiluaren 1999/31/CE Zuzentaraua, 1999ko apirilaren 26koa, hondakinak botatzeari buruzkoa.*
- Europako hainbat zuzentarau eta araudi, bere aldetik jarraibideak eta helburu zehatzak ezartzen dituztenak Hondakin Planak hainbat gaitan.
- Kontseiluaren 92/43/CEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta fauna eta flora basatiak kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/CE Zuzentaraua, uren politikaren arloan Batasuneko esparru bat ezartzen duena.
- 2006/118/CE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, lur azpiko urak kutsaduraren eta narriaduraren aurka babesteari buruzkoa.

Estatukoa

- 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinei eta Kutsatutako Lurzoruei buruzkoa.
- Estatuko hainbat lege, dekretu eta erregelamendu, bere aldetik jarraibideak eta helburu zehatzak ezartzen dituztenak Hondakin Planak hainbat gaitan.
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa, natura kontserbatzeari buruzko araudi nazionalaz gain.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratari buruzkoa; eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, azaroaren 17ko 37/2003 Legea, Zaratari buruzkoa, garatzen duena, zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokionez.
- 34/2007 Legea, azaroaren 15ekoa, Airearen Kalitateari eta Atmosferaren Babesari buruzkoa; eta 100/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, Atmosfera Kutsatu dezaketen Jardueren Katalogoa eguneratzen duena eta hura aplikatzeko oinarritzko xedapenak ezartzen dituena.
- 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina eta hura garatzeko araudiak onartzen dituena.
- 400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Ekialdeko Kantauriko Mugarte Hidrografikoaren Espainiako zatiaeren Plan Hidrografikoa onartzen duena.

Autonomikoa

- 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzorua ez Kutsatzeko eta Kutsatutakoa garbitzekoa.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak Hondakindegietan Biltegitratuta eta Betelanak Eginda Ezabatzea arautzen duena.



- Autonomia Erkidegoko hainbat dekretu eta erregelamendu, bere aldetik jarraibideak eta helburu zehatzak ezartzen dituztenak Hondakin Planak hainbat gaitan.
- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza eta Eraispén hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzeko dena.
- 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Ingurumena Babesteko Lege Orokorra.
- 11/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta Programen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoa egiteko Prozedura arautzen duena.
- Hainbat dekretu, Kontserbazio Gune Bereziak eta haien kontserbazio neurriak onartzen dituztenak.
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde antolamenduan Paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urei buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoa.
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina eta Natura kontserbatzeari buruzko gainerako Araudi Autonomikoa onartzen duena.

4. INGURUMEN EBALUAZIOAREN XEDE DEN ESPARRU GEOGRAFIKOA. HONDAKIN PLANAREKIN LOTUTAKO INGURUMEN AREA ETA ALDERDI GARRANTZITSUAK

Hondakin Plana da Gipuzkoako Lurralde Historiko osorako hondakinen kudeaketa sistema osatuko duten helburuak, zehaztapenak, estrategiak, programak eta jarduketak lerroak definitzen dituen sektore plangintzaren tresna; ondorioz, Hondakin Planaren aplikazio esparrua eta ingurumen ebaluazioarena Gipuzkoa osoa da, eskualdeko edo tokiko banaketa espezifikorik gabe.

Horrez gain, kontuan izan behar da ez dela Hondakin Planaren xedea hark ezarritako azpiegituren lurraldekatze eta kokapen zehatza ezartzea (hori, hala badagokio, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektorialaren aldaketaren ardura izango da); horrenbestez, planaren jarduketek ez dakarte eragin zuzen, zehatz, zehaztu eta lokalizaturik lurraldean.

Dena dela, Gipuzkoan hainbat area edo gune daude, beren natura balioengatik (GNB, intereseko landaredia eta fauna duten guneak, korridore ekologikoak), kultura balioengatik (saiklatutako eta inbentarioan jasotako ondasunak, BAG), paisaia balioengatik (gune katalogatuak edo paisaia interesekoak), balio hidrologikoengatik (plan hidrologikoetan babestutako guneak, hezeguneak), nekazaritza balioengatik (balio handiko lurzoruak), edo ingurumen kalitate baxuagatik (aire kalitate baxua duten guneak, babes akustiko bereziko guneak) edo arrisku naturalengatik (uholde arriskua edo higadura arriskua duten guneak) eragin negatiboa eta diferitua edo zeharkakoa jasan dezaketenak planaren geroko zehaztapenen ondorioz.

Zentzu horretan, beharrezkotzat jotzen da, ingurumenari dagokionez, Hondakin Planak kontuan izatea ingurumen gune horiek, haren hasierako dokumentu estrategikoak dioen moduan, eta jasotzea eta bereziki zehaztea azpiegituren ingurumen alorrean kokapena eta tamaina egokia ezartzeko geroko plan eta proiektu zehatzek, hartatik eratorritakoek, kontuan izan beharreko irizpideak. Instalazioak kokatzeko eta haiei



tamaina egokia emateko eskusioaren edo baldintzapeko mugen irizpideak definitzeko, Hondakin Planak kontuan izango ditu EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren 4.5.2. kapituluaren jasotako irizpideak eta Gipuzkoako Hiri Hondakinaren Azpiegituren LPSren memoriaren 6. kapituluaren ezarritakoak.

Horrenbestez, behin instalazioen tamainaren eta kokapenaren irizpideak hartutako, Hondakin Planaren ingurumen alderdien analisia oinarritu behar da garbi eta modu sintetikoan deskribatzean eta ebaluatzean, planak ezartzen dituen eduki propioei dagokien xehetasun mailarekin, honako aldagai eta ingurumen arazo garrantzitsu eta baztertzaila hauek, hiri hondakinaren kudeaketarekin harreman estuagoa dutenak, eta bereziki aztertu beharko direnak ingurumen ikerketa estrategikoan: uraren erabilera jasangarria; lurzorua; energia; baliabide materialak (berriztagarriak eta berriztaezinak) eta hondakinak; kutsatzaile solidoen, likidoen eta gasen emisioa, kontuan izanda klima aldaketan eragiten duten berotegi efektuko gasen isurpena; eta alderdi horien guztien eta osasunaren arteko harremanak.

5. INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOAN AINTZAT HARTZEKO ALDERDIAK ETA IRISMENA

Ingurumen-azterketa estrategikoa GHHKPOren osagai bihurtuko da, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia bildu behar du, baita ere urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, II. Eranskinean ingurumen-jasangarritasun txostenerako ezartzen duen edukia.

Eranskin horietan definitutako atalen garapena jarraian adierazitako hurrenkerari jarraituz egiten ahalegindu behar da, eta txosten honek aurreko idatz-zatietan seinatu dituen alderdiak landu beharko dira, baita egindako kontsultari emandako erantzunetan eta aurkezten diren alegazioetan administrazioek, instituzioek eta publiko interesdunak arazotsutat jotzen dituzten ingurumen-azterketak ere, halakorik balez, betiere, honakoa aintzat hartuta:

5.1. Planaren edukiaren eta helburu nagusien laburpena eta beste plan eta programekin daukan harremana.

Ingurumen-azterketa estrategikoa GHHKPOren edukiaren laburpen bat egin behar du (edo hara jotzeko adierazi), bertan deskribatuz aurrekariak, helburuak eta jarduketak eta aurreikusitako erabakiak, aintzat hartutako gainerako alternatibekin batera. Era berean, aurreikusitako jardueren eta garapen-tresnen denborazko plangintza ere deskribatu beharko da.

GHHKPOren helburu eta jarduera-ildoek berarekin loturarik izan lezaketen plan eta programa desberdinen helburuekin eta xedapenekin duten koherentzia eta harremana zehaztuko da; helburutzat hartuta, helburu komunak agerian uztea eta sustatzea, edo beste plan edo programen helburuekin eta jarduera-ildoekin gainjartzeak, gatazkak edo bateraezintasunak gertatuz gero jarduera-alternatiba posibleak ebaluatzea.



Alde horretatik, irismenaren dokumentu honetako 3.A idatz-zatian, zerrendatuta daude jada plan eta programa batzuk, GHHKPOren helburuekin eta zehaztaperen espeziфикoekin harreman handien eta estuena dutela iritzita: EAEko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Plana, Garapen Jasangarriaren 2002-2020 Euskal Estrategia, EAEko IV. Ingurumen Esparru Programa (2015-2018), Gipuzkoako Uraren Erabilera Jasangarrirako Gidalerroak, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, Gipuzkoako Energia Foru Plana, Euskadiko Energia Estrategia, eta abar.

Gainera, irismenaren dokumentu honetako 4. idatz-zatian azaldutakoa aintzat hartuta, funtsean lurralde-gaiak dituzten planak ere (Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren LPS, Nekazaritza eta Basoak zaintzeko LPS, Ibaiak eta Errekak antolatzeko LPS, lurralde-plan partzialak, natur baliabideak antolatzeko planak, kontserbazio bereziko eremuen kudeaketa-planak, eta abar) kontuan hartuko dira, baina soil-soilik instalazioen kokapena eta lokalizatorako salbuespen-irizpideak edo mugapen baldintzatua erabakitzeke.

5.2. Ingurumenaren babeserako nazioarte-, erkidego-, estatu-, autonomia erkidego eta foru-eremuetan finkatutako helburuak, eta planaosatzean hori aintzat hartu izan den moduari buruzko justifikazioa.

Ingurumen-azterketa estrategikoak azaldu egin beharko du irismenaren dokumentu honetako 3. idatz-zatian seinalatutako ingurumenaren babesaren eta jasangarritasunaren helburuak eta irizpideak, edota planaren formulazioan ezarritako besteren batzuk, nola gaineratu diren GHHKPOra, horretarako, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak erabilia.

5.3. Planak erasandako eremuaren karakterizazioa eta ingurumen-arazoak. Ingurumen-unitate homogeenak. Natura 2000 Sarearen gaineko ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak erasandako eremuaren ingurumen-ezaugarriak deskribatu behar ditu, haren egungo egoeraren diagnostikoa eginez, GHHKPOren eragina jasan lezaketen ingurumen-aldagai nagusiei dagokienez.

Kontuan hartuta irismenaren dokumentu honen 4. idatz-zatian ezarritako balorazio-esparrua, azterlan hau zentratu beharko da modu argi eta sintetikoan, eta GHHKPOren eduki zehatzei dagokien xehetasun-maila berarekin, deskribatu eta ebaluatzean jarraian adierazitako ingurumen-aldagai esanguratsuenak eta hiri-hondakinen kudeaketarekin lotura zuzenena dutenak: uraren, lurzoruen, energiaren, baliabide materialen (berriztagarriak eta ez berriztagarriak) eta hondakinen erabilera jasangarria; solido, likido eta gas kutsatzaileen emisioak, berotze globalean eragina duten berotegi-efektuko gasen emisioaren auzia bereziki aintzat hartuta, eta horiek guztiek beren artean dituzten elkarreraginak eta osasunarekin duten elkarreragina.



Atal honetan sartuko da, gainera, eremuak jasaten dituen ingurumen-presio eta ingurumen-arazo nagusien gaineko analisia, horren bidez baloratu ahal izateko arazo horiek zer eragin izango duten GHHKPOn eta honek arindu ala larritu egingo dituen.

Aldagai horietako bakoitzaren analisiak behar besteko sakontasun-maila izango du, Gipuzkoako lurralde-eremuan dauden ingurumen-balioen eta -arazoen diagnostiko bat eskuratzeko beste. Alde horretatik, aintzat hartu eta erabili beharrekoak izango dira irismenaren dokumentu honetako 3.A idatz-zatian aipatutako plan, programa eta estrategia askok aipatutako alderdi tematiko horietako bakoitzerako jasotzen dituzten analisiak, diagnostikoak eta balorazioak, eta horrekin batera, ingurumenaren adierazle- eta -zaintza sistemen emaitzak ere bai (EAEko airearen kalitatearen sarea eta ebaluazioa –urtekoa–, EAEko uraren egoeraren sarea eta jarraipena, lur kutsatuen inbentarioa, berotegi-efektuko gas-emisioen inbentarioa, eta abar), eta administrazio desberdinek ingurumenaren egoerari buruz egindako agiriak eta jasangarritasun-txostenak.

Ingurumen-unitate homogeneousen trataerari dagokionez, horiek irismenaren dokumentu honetan instalazioak kokatzeko eta behar bezala dimentsionatzeko salbuespen-gune edo mugapen baldintzatuari buruz adierazitakotik abiatuta definitu ahalko dira.

Azkenik, aintzat hartuta GHHKPOk ez duela hiri-hondakinen kudeaketako instalazioen lurralderatzea eta kokapena barne hartzen, eta planak, geroko lokalizazioen ingurumen-mugei dagozkien irizpideen barruan, bildu behar duela Natura 2000 Sareko espazioen (batasunaren intereseko lekuak, kontserbazio bereziko guneak eta hegaztientzako babes bereziko guneak) salbuespena, hortik ondorioztatzen da ez dela aurreikustekoa GHHKPOk babesgune horien gainean eragin esanguratsurik izatea.

5.4. **Alternatiben hautapen-prozesuaren justifikazio arrazoitua. Hartutako konponbidearen justifikazioa.**

Azterlanaren eremuko ingurumen-elementuak eta ingurumen-arazo esanguratsuak nahiz ingurumenaren babeseko helburuak identifikatuta, GHHKPO garatzeko eta bere helburuak betetzeko alternatibak aurkeztu beharko dira, ikuspegi teknikotik, ekonomikotik eta ingurumenaren aldetik bideragarriak. Nahitaezkoa da horien artean “0 alternatiba” agertzea, hau da, planaren exekuzio eza (egungo plangintza mantentzea -2008ko aurrerapen dokumentua).

Honako irismenaren dokumentuaren 1, 3 eta 4. idatz-zatietan azaldutako GHHKPOren ezaugarriak, edukiak, irismena eta xehetasun-maila aintzat hartuta, bai orokorrean eta bai ingurumen-gaiei dagokienez, alternatiben analisi hori planteatutako lau programa horietako bakoitzeko aukera posible desberdinak aztertuz egin ahalko da. Aukera horiek egituratu ahalko dira kudeaketako azpiegitura posibleen tipologia eta/edo kopuruari eta programa bakoitzeko egingarriak diren jarduera desberdinei erreparatuta, eta aldeztu aurretik aztertu beharko dira aukera horietako bakoitzak aurreko idatz-zatian, hau da, irismenaren dokumentu honen 5.3 atalean, deskribatutako ingurumen-alderdietan izango lituzkeen ingurumen-eraginak, eta zer-nolako egokitasun- eta



koherentzia-maila duen agiri honen 3. idatz-zatian ezarritako ingurumenaren jasangarritasun eta babeserako irizpide eta helburuekin.

Nolanahi ere, alternatibean analisiak berak azaldu beharko du erabilitako metodologia eta zein neurritan aintzat hartu diren ingurumen-faktoreak, eta hala balegokio, faktore tekniko-funtzionalak eta ekonomikoak, irizpide askotariko ikuspegi batetik. Alde horretatik, azkenean hautatutako alternatiba baloratutako alderdi bakoitzean ez badator bat ingurumen-balorazio hoberena duenarekin, azaldu egin beharko dira hautu hori hobesteko arrazoiak.

5.5. Hautatutako GHHKPOren zehaztapenek eta jarduerak ingurumenean duten eragin esanguratsuak identifikatzea eta baloratzea.

GHHKPOk ezartzen dituen lau programen kudeaketa- eta jarduera-ildoen ingurumen-eraginak identifikatu eta ebaluatu egingo dira (behintzat, ikuspegi kualitatibotik). Zehazki, irismenaren dokumentu honetako 3. eta 4. idatz-zatietan definitutako ingurumen-aldagai eta -baliabide diskriminatzaileei dagozkien eraginak, hau da: airea, ura, lurra, baliabide naturalen kontsumoa, hondakinen kudeaketa, energia, klima-aldaketa eta osasuna.

Ebaluazioa egiteko erabilitako metodologia azaldu egin behar da, eta seinatu egingo dira, hala balegokio, eraginak baloratzerakoan izandako zailtasunak, ikuspegi teknikoak eta/edo ezagutza nahiz esperientziaren aldetik, eta zailtasun horiek nola gainditu diren.

Eraginen garrantzia zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinak 8. idatz-zatian araututako definizioak erabil daitezke, eta eraginak sailkatu hainbat aldagaien arabera, hala nola: gertatzeko probabilitatea, zeinua (positibo edo negatibo), gertatuko diren unea (planaren garapenarekin batera edo denboran banatuak), iraupena, itzulgarritasuna, berreskuragarritasuna, garrantzia eta irismena, ondorio zuzenak edo zeharkakoak, ondorio metatzaileak edo sinergikoak. Nolanahi ere, azkenean, honela sailkatu behar dira ondorioak: bateragarriak, arinak, larriak eta kritikoak

Analisi bereizi hori egin ondoren, GHHKPOk oro har azterketa-eremuaren ingurumenaren gainean izango duen ingurumen-eragin globalari buruzko ondorioak azalduko dira.

5.6. Ingurumen-integrazioarako neurriak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak, aurreko idatz-zatian zehaztutakoaren arabera identifikatutako ingurumen-ondorioak ikusita, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak garatuko ditu, GHHKPOk erabakitako programa bakoitzaren kudeaketa- eta jarduera-ildoen ondorio negatiboak, halakorik balego, murriztea ahalbidetzeko eta era berean ondorio positibo eta onuragarriak ahalik eta gehien handitzeko. Horrenbestez, neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamenen zehaztasun-maila GHHKPOren definizio-eskalarekin bat etorriko da.



Alde horretatik, eta aintzat hartuta GHHKPOri ez dagokiola hiri-hondakinen kudeaketarako beharrezkoak diren azpiegituren lurralderatzea eta kokapen zehatza, ingurumen-azterketa estrategikoak puntu honetan zehaztu ditu dokumentu horrek hautatzen dituen kudeaketa- eta jarduera-aukeren hobekuntza edo optimizaziotzat har daitezkeen neurriak, planaren behin betiko idazketan gaineratu ahal izateko.

Era berean, ingurumen-azterketa estrategikoak etorkizunean GHHKPOren proposamenak lokalizatzeko edo zehazteko xedea duten maila beheragoko planen edo proiektuen diseinurako irizpide eta gidalerro orokorrak ere sartuko ditu, zehazki, ingurumen-eraginaren ebaluazio bateratua edo banakatua bete behar duten plan eta proiektuei dagokienez.

Alde horretatik, geroko azpiegituren kokapen eta dimentsionamendu egokiari dagozkion irizpideak emanda daude jada, eta hein berean, beste batzuk ere planteatu ahalko dira jada aipatuak izan diren aldagaiei dagokienez, hau da, airea, ura, lurzorua, baliabide materialak (berriztagarriak eta ez berriztagarriak), hondakinak, klima-aldaketa eta osasuna. Hortaz, zehaztu eta bereizi egingo dira batetik, zuzenean GHHKPOn aplikagarriak diren neurriak, eta bestetik, beheragoko planetan edo GHHKPOren garapen-proiektuetan aplikatzekotzat zeharka hartu behar diren neurriak.

Horrekin guztiarekin bat etorrira, eta ingurumen-azterketa estrategikoan analizatu eta osatu beharreko proposamentzat har daitezke honako hauek:

- GHHKPOren programen kudeaketa- eta jarduera-aukera desberdinei buruz egindako analisian ikusi ahal izan diren prebentzio- eta babes-neurriak.
- Hiri-hondakinen eremuan eskumenekoak diren administrazioek, aurreikusitako eraginak zuzenean jasan litzaketen ingurumen-arloko administrazioek edo administrazio sektorialek edo publiko interesdunak dokumentuaren informatzeko eta kontsulta egiteko betebeharreko faseetan emandako erantzunetan iradokitako prebentzio- eta babes-neurriak.
- Hondakinen tratamenduaren eta kudeaketaren arloan kutsaduraren prebentzioari eta kontrol integratuari (IPCC) buruzko araudietatik eratorritako eta eskuragarri dauden teknologia hobereenen (MTD edo BAT) analisisa (aintzat hartuta, esaterako, "Waste Treatments Industries" y "Waste Incineration" BREF dokumentuetan adierazitakoak), aplikagarriak izan daitezkeenak bai GHHKPOn, bere edukiaren xehetasun-mailarekin, eta bai bere garapenerako plan eta proiektuetan.
- Kudeaketa-sistemetan eta azpiegituretan honako irizpideak aintzat hartu: efizientzia energetiko handiena, lurzoruaren okupazio txikiena, materialen aprobetxamendurako eta berreskurapenerako gaitasun handia eta ingurumenaren eta osasunaren gaineko kalterik txikiena.
- Partaidetza, formazioa eta informazioa helburutzat duten ekintza-planak
- Ikuskaritza-programa bera (GHHKPOren jarraipen eta kontrolerako mekanismoak), ondoko idatz-zatian zehaztutakoaren arabera.



5.7. **Planaren ondorioen ingurumen-ikuskapenerako programa.**

GHHKPOn proposatutako jardueri dagokienez, plana behar bezala aplikatzen dela, helburuak betetzen direla eta ingurumen-kalitatea zaintzen dela bermatzeko helburua du ikuskapen-programak, baita proposatutako neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileak betetzen direla bermatzea ere, eta aurreikusi gabeko ingurumen-ondoriorik balego, atzematea eta konpontzeko hartu beharreko neurriak proposatzea.

Horrenbestez, jarraipenak xedetzat izango dituen sistemak, alderdiak edo aldagaiak identifikatu eta definituko dira, eta horretarako erabili den metodologia ere bai (adierazleen definizioa, datuak hartzeko estrategiak, muga-mailak edo erreferentziazko mailak, agintaritza arduraduna, aurrekontuak, aldizka txostenak prestatzea, eta abar).

GHHKPOk lortu nahi dituen helburuak aintzat hartuta (ingurumenaren hobekuntza ere tartean dela), uste da, ahal den neurrian, ingurumen-ikuskapenerako programa GHHKPOren barruan berariaz arautu beharrekoa den helburuen eta jarduera-programen gaineko jarraipen eta kontrolerako mekanismo horien barruan integratu beharko litzatekeela, horrenbestez, antolatu ahal izango litzatekeelarik egoeraren adierazleen azterketaren bidez (hasi aurretik eta geroko etapetan ingurumen-kalitatearen neurketak eginda) eta presioaren eta jarraipenaren adierazleak aztertuta (joeren neurketa, planaren helburuei dagokienez, eta plana abian jartzeak eta garatzeak dituen ingurumen-ondorioen neurketa).

Esparru horren arabera, irismenaren dokumentu honen 6. idatz-zatian agertzen da GHHKPOren ikuskapenerako ingurumen-adierazleen zerrenda bat, bereizigabea eta orientabide gisa, organo sustatzaileak edo planaren jarraipena egiteko agintaritza arduradun gisa finkatzen den jarraipen-batzordeak beharrezkotzat joz gero handitu egin litekeena.

5.8. **Alternatiben eta prebentziorako, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.**

GHHKPOren definizio-maila aintzat hartuta, hurbilpen orokor bat egingo da, eta alternatiben analisi ekonomikoa ere gaineratuko zaio, ahal den neurrian sartuz ingurumen-arloko nahiz lan-arloko kanpoko kostuen analisisa.

Era berean, idatz-zati honetan sartuko da GHHKPOren aplikazioan sor litezkeen ondorio negatiboak prebenitzera, murriztera edo arintzera bideratutako neurrien kostuaren zenbatespena, hein horretan bermatze aldera beragandik eratorritako ingurumen-kostuen barneko izaera, eta horrez gain, neurri horiek finantzatzeko iturriak ere zehaztuko dira, modu horretan bereiziz administrazioen aurrekontuen konturakoak direnak eta beste sustatzaile batzuek bere gain hartu beharrekoak direnak, halakorik balego.

5.9. **Izaera teknikoa ez duen laburpena.**



Ingurumen-azterketa estrategikoak emandako informazioari buruzko izaera teknikoa ez duen laburpen bat idatzi beharko da, argi eta labur azalduz eta publikoak oro har ulertzeko moduko hizkera erabilia, aurreko puntuetan bildutako informazioa ezagutzera emateko. Era berean, planaren ulermena eta publikoaren partaidetza ahalbidetzeko dokumentazio grafikoa eta dibulgazio-elementuak ere gaineratzeko ahalegina egingo da.

6. INGURUMEN EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPEN PROGRAMAN AINTZAT HARTZEKOAK DIREN ADIERAZLE KUANTITATIBO ETA/EDO KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Ingurumen-ebaluaziorako eta ikuskapen-programarako hautatutako adierazleak, batetik, GHHKPOk ezarritako helburu orokorrak eta ingurumen-helburuak betetzen direla, eta bestetik, haren garapenean aurreikusitako ingurumen-ondorioak betetzen ote diren egiaztatzea ahalbidetzen duten aldagaien konbinazio bat izango dira, hein horretan, neurri zuzentzaile gehigarriak hartu ahal izateko, ingurumen-helburu horiei dagokienez ez betetzeak edo desbideratzeak gertatuz gero.

Ingurumen-adierazleak:

- Markatutako helburuekin eta ingurumen-irizpideekin lotura izan behar dute, hein horretan GHHKPOren formulazioan eta aplikazioan esku hartzen duten eragileen erantzukizuna zehaztea ahalbidetuko duten kudeaketa-tresna gisa funtziona dezaten.
- Neugarriak izan behar dira eta denborazko sailetan aztertze modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna islatu behar dute, hein horretan, analizatzeko modukoak izan daitezen joera negatiboak prebenitzeko edo zuzentzeko asmoz.
- Kopuru txiki bat izan behar da, esku hartzen duten eragile guztientzat erraz ulertzeko modukoak izateko.
- Eskura egon behar dira, eta ahal den neurrian, eskuratzeko informazio-iturriak ez dira asko izan behar.

Irismenaren dokumentu honetako 5.7 idatz-zatian aipatutakoari jarraituz, GHHKPOren zehaztapenen betetze-maila eta ingurumen-alderdien integrazio-maila eta horien denborazko jarraipena baloratzeko gidatzat baliagarriak izango diren ingurumen-adierazle sorta bat agertzen da jarraian. Proposamen hau iradokizuntzat hartu behar da, eta bestelako sorta bat prestatzeko eta/edo osatzeko aukera dago:

Egoeraren, presioaren eta jarraipenaren adierazle posiblea:

- Hondakinen kudeaketarako dauden azpiegituren kopurua, aurreikusitakoan aldean.



- Azpiegituren tratamendu-gaitasuna.
- Sortutako hondakinen karakterizazioa eta osaera.
- Hondakinen produkzio-tasa (totalak, sektoreka, korronteka).
- Hondakinen murrizketa-, berreskurapen-, balorizazio- eta ezabaketa-tasak (totalak, sektoreka, korronteka).
- Prebentzioaren, birziklapenaren, konpostatzearen, balorizatzearen eta ezabatzearen arloetan egindako jarduerak..
- Egindako inbertsioak, aurreikusitakoen aldean.
- Beharrezko baliabideen kontsumoa (ura, energia, eta abar). Beharrezko baliabideen kontsumoa (ura, energia, eta abar).
- Berotegi-efektuko gasen eta atmosferaren beste kutsatzaile batzuen emisioak. Airearen kalitate-indizeak.
- Uretara egindako isurpenak. Uraren kalitate-indizeak.
- Hondakinen bidez sortutako energia.
- Partaidetza-, formazio- eta informazio-ekintzen kopurua.
- Eta abar.

7. INFORMAZIO ETA KONTSULTA MODALITATEAK

GHHKPOrako berriazko planteatutako parte hartze prozesuaz gain, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. eta 22. artikuluetan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, GHHKPOren onarpenerako prozeduran aurreikusitako tramiteen barruan, honako informazio eta kontsultatzeko jarduerak egingo ditu:

- a) Erasandako administrazio publikoei eta publiko interesdunari GHHKPOren hasierako bertsioaren eta ingurumen-azterketa estrategikoaren kontsulta.
- b) GHHKPOren hasierako bertsioaren eta ingurumen-azterketa estrategikoaren jendaurreko informazioa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Departamentuaren baliabide elektronikoetan iragarkia jarritz, eta gutxienez, 45 egun emanaz aztertzeko eta oharrak egiteko.

Horren ondorioetarako, erasandako herri-administrazioetat eta interesdun publikotzat hartuko dira irismenaren dokumentu honetako 2. idatz-zatian zerrendatutako administrazioak, erakundeak eta elkarteak.



8. JENDAURREKO INFORMAZIO ALDIAREN ONDOREN, INGURUMEN ADIERAZPEN ESTRATEGIKOA ESKATZEA ETA PLANAREN ALDAKETA POSIBLEAK

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24. eta 25. artikuluetan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz, GHHKPO behin betiko onarpena eman aurretik, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi eskatu behar zaio ingurumen-adierazpen estrategikoa igortzeko (ingurumen-memoria, 211/2012 Dekretuak erabilitako terminologian), eta eskaera horrekin batera aurkeztu behar ditu ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa, hau da, honakoez osatua:

- GHHKPOren dokumentuak, ingurumen-azterketa estrategikoa barne (edo ingurumenaren jasangarritasunari buruzko txostena, 211/2012 Dekretuak erabilitako terminologian).
- Espedientearen kopia, dagokion araudi sektorialaren arabera beharrezkoak diren txostenak eta kontsulta eta jendaurreko tramiteetan egindako alegazioak eta dagozkien erantzunak barne.
- Laburpen bat azalduz nola integratu diren GHHKPOren azken proposamenean ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta irismenaren dokumentuarekiko egokitasuna, egindako kontsulten emaitzak eta hauek nola izan diren aintzat hartuak.

Bestalde, aintzat hartu beharko da planaren tramitazioan eta kontsultaren eta jendaurreko informazioaren tramiteen ondoren aldaketaren bat onartuko balitz ebaluatu gabeko ingurumen-ondorioak izan litzakeena, eta nolahi ere, 211/2012 Dekretuko 4. artikulua aipatutako kasuren bat gertatuz gero, Zuzendaritza honi jakinarazi beharrezkoa izango dela, aldatutako plan edo programaren alderdi horiek ebaluatzeko beharrezkoa izan litekeen dokumentazioa ere bidaliz.

Donostia, 2018ko uztailaren 23a

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,


Sin.: MÓNICA PEDREIRA LANCHAS